

Irati Gonzalez Ferreira

E maila • 1 aipamena

2009ko apirilaren 13an jaio nintzen Beasainen. Nire izena Irati Gonzalez da eta Andramendi ikastolan burutzen ditut nire ikasketak. Dantza, musika eta bertsolaritza gustuko ditut baita lagunekin jolastea ere.



Doinua: Furra-furra

TEKNOLOGIA BERRIAK ETA EUSKARA

Teknologi berriak
hortxe egunero
whatsapeatzen dut nik
goizero-goizero
ta argazki berriak
ateraz gauero,
sare sozialek ni
jartzen naute ero

Hizkuntza ederra da
gurea euskara,
erabiltzean jarri
dezagun indarra,
ahoz edo idatziz
gu ibiltzen gara,
eta hitz egitean
ez gal irribarra